

GURE LEHEN KONGRESU HAU

Eskuetan duzun argitalpena Arantzazun, 2002ko Ekainaren 24-28etan, ospaturiko Histori Kongresuko emaitza da. Titulua eman behar eta, *Euskal Herriko Erlijosoen historia* izendatu dugu, Euskal Herrian ezagutu den iraganeko erlijioso-bizitza deskribatu nahi duelako.

Kongresuari izenburua ematean, honela egin genuen: “Familia eta Institutu Erlijosoen Euskal Herriko Historiaren I. Kongresua”. Hortaz, *Historia* interesatzen zitzaigun, *Euskal Herrikoa*, bertan *Ordena eta Kongregazioek* eta hauei loturiko *eliz Elkarteek* bizi izandakoa. Ez genuen beste mugarik jarri: lurraldez Euskal Herri osoa nahi genuen arakatu, eta denboraz, ostera, erlijioso-sorreraren hasieratik gure egunak artekoa begiratuta utzi.

Hasteko, bada, Euskal Herria (bere gaurko lurraldea batik bat) hartu du Kongresuak unitate historiko aztergarritzat, inguruak ahaztu gabe, noski, eta fenomenoak guretik kanpora ere izandako hedapenak gogoan ditugula, handia izan baita, izan ere, mendeetako euskal erlijijosoen kanpora behar hori, erlijioso misiolariak tartean direla.

Kongresuak bi alde nagusi batu nahi izan ditu elkarrekin: historia eta erlijiotasuna. Edo zehazkiago oraindik: iraganeko euskal gizartea eta berorren barruan milaka gizon-ema-kumek hautaturiko erlijioso-bizimoldea. Erlijosoen Erakunde hauek beren baitan izan duten esperientzia historikoa aztertu dute biltzarkideek, betiere ondoren euskal gizartean beraiek izan duten lekua definituz joateko, eta Eliza Katoliko osoan izandako euskal protagonismo horri ere so eginez.

Erlijioso-Institutuak ez dira aztergai erraza, gaur egun. Zaila da, batez ere historialari zibilarentzat, gizarte sekularatuan gero eta urrunago geratzen ari den erlijioso-mundu instituzional hau, hain albora ageri baita orain monje, fraide eta lekaimeen erreinua (neurri handi batean, hiltzear ere ageri zaiguna). Ez da erraza erlijioso-bizitzaren ezaugarriak berezko gardentasun propioan aditzea (otoitz-bizitza, zin-hitzen eta bizieraren zergatiak, etab.). Horregatik, ikertzaile hauen eskutik sarriago ezagutuko dugu Iratxeko ekonomia eta Orreagako kalonjeen lurralde-ondasunen historia, edo Leireko Monasterioak Nafarroako Koroarekin izandako harremanena. Irakurle arrunta ere adiago dago historia-ko beste alde horiei, izan ere Erreinuko historia sozio-ekonomikoa ezin baita deskribatu Monasterio eta Komentuen presentzia hori ezagutu gabe. Zerbait aurrerago joaz, mentalitateen historiarekin ere laster topo egiten dugu historialari zibilien lanetan, betiere Etxe horiek kanpoko kristau-gizartearekin izandako harremanak aztertzean. Esan behar da lezio ederra dela, oro har, historiografia zibil honek euskal historia orokorrera dakarrena, gaiekiko interes berrietan hainbat aurkezten dituen metodologietan. Baina aski ote da?

Non eta nola ezagut Monasterio eta Komentuetako gizon-emakume erlijijosoen esperientzia pertsonalak, etxe-barruko esperientzia soziala eta bihotz-barruko fedezko bizipena? Egitura sozio-ekonomikoek, beste gabe, noraino argi dezakete hori, giza misterioaren baitan haragoko fedezko bigarren misterioa den hori? Kezka honek errazago eztenkatzen du historialari erlijiosoa, historialari zibila baino (fededun nahiz fedegabea izan hau).

Hala ere, historialari eliztarrak ere historia erlijiosoan berezkoak ditu zailtasunak. Alde batetik, badirudi zenbaitetan “modernitatearen” edo gaurko sekulartasunaren galderak atzematen ez duela samurra beti, edo entzungor egiten diela erronka berri horiei; bestetik, kezka beretarragoetan dabilela, histori ikerbide errazegiak ere har ditzake, edo, alderantziz,

irtenbide metodologiko oraingoz zailegietan sartu. Aktetan bertan ikus daitekeenez, erlijio-soen historiara hurbiltzen den eliztarrak ezinbestean aipatu ohi ditu Institutuko *karisma*, bertan ezagutu diren *santuak*, ehunka edo milaka lagunen *esperientzia erlijiosoa*, etab. Nola azter horiek kontatera historiografikoan zientziaren sinesgarritasuna galdu barik?

Bi historiografia hauen arteko zubiak eraikitzeke daude oraindik, gurean noski, eta hortik munduan zehar ere: kasu honetan, historialariak ibai berari ibaiertz kontrajarrietatik begira daudela esan daiteke, nahiz eta guztiek duten jakin-nahi bera, urek dakarten bizia bere jatortasun osoan dastatzeko.

Horrek guztiak beste itaun berrietara garamatza. Historialariaren aldetik, zeintzuk dira, eremu erlijiosoan, ofizioa jatorki eramateko bete behar diren ikertzaile-baldintzak? Errealitate erlijiosoa ezagutzeko, nahitaezkoa al da sinestuna izatea, edo eta fededuna? Eta, zientziaren beraren baldintzetatik: idazgarria al da, egiaz eta funtsean, santu baten biografia, edo Elizaren historia nahiz Institutu Erlijiosoena?

Erantzuna ez da denentzat berdina izango, Elizaren historia bera batzuentzat beste edozein historiaren pareko baita, ezagutza historiko orori dagozkion baldintza berekin; besteentzat, ordea, "disziplina historiko-teologikoa" da historia hori (Jedin I, 27-28). Horrez gain, beti galde dezakegu nola balia daitezkeen historialariak aztergaiaren aldetiko (Elizarekiko) definizio bakar batez, sinestunak berak ere iritzietan hain sakabanatuta ageri zaizkigunean (ik. Jedin I, 29-30).

Baina aztergaiari heldu baino lehenagoko ofizio-arazo bat ere badago historialari fededunen artean bertan: Nola elkar daitezke fedea eta historialari-lana, historiari oro har eta historia erlijiosoari dagozkienetan? J. Delumeau-k iker-esperientzia horretaz galdetu zion, orain urte batzuk, Frantziako 25 historialari sinestuni, eta kalean daude erantzunak (Chaunu, Rémond, Riché, Rapp, Pierrard eta abar tartean direla: *L'Historien et la foi*. Paris, 1996).

Arazo hauek nabarmenki ageri zaizkigu lerro-tartean Kongresu honetako hainbat lanetan, idazlea ohartuta edo ohartu gabe.

Bestalde, gogoratzekoa da, gaur egungo historiografiako arazo epistemologiko sakonek historiografia erlijioso berritik jaiotakoak ere badirela: begira M. de Certeau-ren *L'écriture de l'Histoire* (1970...). Erroka berriek aurreagoko belaunaldiko historialari handienak urduri eta sineskor jartzerainoko arazoak daude tartean (Le Roy Ladurie edo Braudel, adibidez, sortutako ezinegon horren lekuko izan ziren). *Akta* hauetako kezkek ez dira iristen hain urrun; baina azalpen pertsonalen azpitik bestelako arazo larriago hauek ere barrunta daitezke orrialde hauetan.

Hitzaldi eta Txostenetan datuari eman zaio batez ere lekua, hau da, gertakarien zehaztasun eta gorputzari, nahitaezko lehen urratsa baitzen hori lurralde berrietara iragan aurretik: ez dago analisi posiblerik aztergai izan dezakeguna baden ere jakiteke. Hortaz, Kongresu honetako ekarpenak, aberatsak izanda ere, guztiz apalak dira: jatorrizko lehen errealitate xumeak mugatu gaitu, azkenean uste izan baitugu ez zegoela apenas beste inondik hasterik, geunden abiapuntuan egonda. Egia da, ez da hori beti horrela izan, eta badago bestelako lanik ere, azalpena azterlan ere bihurtuz, baina, oro har, lanak gertaeren xumetasun hartan geratu dira.

Dena den, jazoeren historia hori ere lezio ederra suertatzen da, lehendik ezer gutxi genekienontzat. Adibiderik behar balitz, karmeldarrei eskainitako idazlana aipatuko nuke (J. Urkiza), beste hainbat gutxietsi gabe.

Kongresuaren asmoen artean egon da ikertzaile gazteak ere historia erlijioso honetara erakartzeko xedea, zeren eta Institutu Erlijiosoak, hein batean, Euskal Herritik desagertzeko edo oso tamaina neurtura etortzeko une hau paradoxaz parada ona izan baitaiteke iragan horren oroimena belaun berriaren bidez salbatzeko.

Joseba Intxausti
Kongresuko Koordinatzailea